



**EBAZPENA, 2016ko uztailaren 26koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Langileak Kudeatzeko zuzendariarena; Honen bidez, hautaketa-prozeduretan oposizio-aldian izangaiek lortutako kalifikazio totalak argitara ematen dira (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko otsailaren 5eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduretan)**

---

2016ko otsailaren 5eko Aginduaren (EHAA, 2016ko otsailaren 9koa) bidez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, dei egin ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozedurak, baita aipatutako kidegoko funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko ere.

Aipatutako Aginduaren 7.5 oinarriaren bosgarren paragrafoak zehazten duenarekin bat etorritik, izangaiek oposizio-aldian lortutako kalifikazio totalak argitara ematen dira.

Horrenbestez,

### **EBATZI DUT**

**Lehenengoa.-** Argitaratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduretan, baita aipatutako kidegoko funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzekoan ere, oposizio-aldian izangaiek lortutako kalifikazio totalak (Hautaketa-prozedurak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta kultura sailburuaren 2016ko otsailaren 5eko Aginduaren bidez deitu ziren).

**Bigarrena.-** Oposizio-aldiko kalifikazio totalen zerrenda ondorengo lekuan emango da argitara:

<http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) -> "EPE 2016. Sartzeko eta iristeko hautaketa-prozedura" -> "Hautaketa prozesuaren jarraipena" -> kidegoa eta espezialitatea adierazi -> "Emaizak" -> "Oposizioko nota" – "Alfabetikoki" / "Puntuak".

**Hirugarrena.-** Kalifikazio totalen aurka ez dago errekurtsua jartzerik; interesa duten izangaiek gorako errekurtsua jarri ahal izango dute izangai hautatuen behin betiko zerrendaren aurka (deialdiaren 10.3.2 oinarrian aurreikusitakoa).

Vitoria-Gasteizen, 2016ko uztailaren 26an.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,

KONRADO MUGERTZA URKIDI